

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

### Eusko Jaurlaritza.

#### Zertarako?

- Argi dago **proiektu batek** (eta gehiago bizikidetzakoa izanik) **eduki dezakeen babesik esanguratsuenaren gobernua eta erakunde publikoek emandakoa dela**, jendearengana errazago heldu eta bidean oztopo gutxiago edukitzeko.
- Honen bidez, **erakunde partikularren bitartez lortu ezin daitekeen zabalkundea** lortuko da, **kolektibo zein multzo ezberdin guztien eskuetara** iritsi ahalko baita, eta hori zailagoa baita aipaturako erakundeekin.

### Berdintasunaren aldeko erakundeak.

#### Emakunde adibidez.

#### Zertarako?

- Oso garrantzitsua da gure proiektua aurrera ateratzeko, **asmo zein helburu berdinak dituzten elkarte eta taldeen oniritzi zein elkarlanak bermatzea**, hauek baitira funtsean gure helburura hurbiltzen gehien lagunduko digutenak.
- Ongizate soziala lortzeko elkarlana sustatzeko beharra dauka proiektu honek.

### Telefonía enpresak.

#### Zertarako?

- Doaneko telefono zerbitzu bat** sortu nahi badugu, horretarako **baldintzak eta aukerak** jakin beharko ditugu, **bezeroarekiko arreta guk nahi dugun bezalakoa** izango dela bermatzeko.

### Polizia.

#### Zertarako?

- Polizia da berez horrelako arriskuak daudenean **esku-hartze handiena izan behar duen erakundea**, eta honen esku geratzen da kasu hauetan eman daitekeen ondorio orori aurre egitea. Horregatik, **elkarlanak bion prozesua erraz dezake**.
- Gainera, **gure funtzio batzuetarako** (poliziarekin kontaktu zuzenean jartzeko aplikazioak edukiko duen funtzioa) **harreman honen beharra** izango dugu, eta **gure funtzioetako askok ere, poliziaren lana erraz dezakete**.

### App-aren prestaketarako beharrezko teknikariak.